

Fiskalizazio Txostena

Informe de Fiscalización

Aiarako Udala

Ayuntamiento de Ayala

2020





Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

AURKIBIDEA/ÍNDICE

LABURDURAK	5
I. SARRERA.....	7
II. IRITZIA	8
II.1 Legea betetzeari buruzko iritzia	8
II.2 Urteko kontuei buruzko iritzia	8
III. BARNE KONTROLEKO SISTEMEI ETA KUDEAKETA-PROZEDUREI	
BURUZKO IRIZPENAK	9
III.1 Aurrekontua eta kontabilitatea	9
III.2 Transferentziak eta emandako dirulaguntzak.....	9
III.3 Kontratazioa.....	9
III.4 Beste batzuk.....	10
IV. FINANTZAREN ANALISIA	11
V. URTEKO KONTUAK.....	14
ERANSKINAK	17
A.1 Fiskalizatutako erakundearen izaera.....	17
A.2 Aurrekontua eta kontabilitatea	17
A.3 zergak, tasak eta bestelako sarrerak	18
A.4 Transferentziek eta dirulaguntzek eragindako sarrerak	20
A.5 Pertsonaleko gastuak.....	20
A.6 Ondasun arrunten eta zerbitzuen kontratazioa	21
A.7 Transferentziak eta emandako dirulaguntzak.....	22
A.8 Inbertsio errealak eta aktibo ez korronea	22
A.9 Zordunak.....	23
A.10 Hartzekodunak	24
A.11 Hirigintzako jarduerak eta planeamendua.....	24
A.12 Kontratazioa.....	25
ALEGAZIOAK.....	27



ABREVIATURAS	33
I. INTRODUCCIÓN.....	35
II. OPINIÓN	36
II.1 Opinión sobre el cumplimiento de la legalidad.....	36
II.2 Opinión sobre las cuentas anuales	36
III. CONSIDERACIONES SOBRE LOS SISTEMAS DE CONTROL	
INTERNO Y PROCEDIMIENTOS DE GESTIÓN	37
III.1 Presupuesto y contabilidad	37
III.2 Transferencias y subvenciones concedidas	37
III.3 Contratación	37
III.4 Otros	38
IV. ANÁLISIS FINANCIERO	39
V. CUENTAS ANUALES	42
ANEXOS.....	45
A.1 Naturaleza del ente fiscalizado.....	45
A.2 Presupuesto y contabilidad	45
A.3 Impuestos, tasas y otros ingresos	46
A.4 Ingresos por transferencias y subvenciones	48
A.5 Gastos de personal	48
A.6 Compra de bienes corrientes y servicios.....	49
A.7 Transferencias y subvenciones concedidas	50
A.8 Inversiones reales y activo no corriente	50
A.9 Deudores.....	51
A.10 Acreedores	52
A.11 Actuaciones urbanísticas y planeamiento	52
A.12 Contratación	53
ALEGACIONES	55



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

LABURDURAK

AFA	Arabako Foru Aldundia.
ALH	Arabako Lurralde Historikoa.
ALHAO	Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofiziala.
AO	Administrazio Orokorra.
EAE	Euskal Autonomia Erkidegoa.
EAO	Estatuko Aldizkari Ofiziala.
EIOZ	Eraikuntzen, Instalazioen eta Obren gaineko Zerga.
FA	Foru Araua.
FOFEL	Toki Erakundeak Finantzatzeko Foru Funtza.
GODG	Gastu orokorretarako diruzaintza geldikina.
HAPO	Hiri Antolaketako Plan Orokorra.
HBGZ	Hiri Izaerako Lursailen Balio Igoeraren gaineko Zerga.
HHS	Hiri-hondakin solidoak.
HKEE	Herri-Kontuen Euskal Epaitegia.
HLHI	Haur eta Lehen Hezkuntzako Ikastola.
JEZ	Jarduera Ekonomikoen gaineko Zerga.
LOP	Lurraren Ondare Publikoa.
LZ	Lanpostuen zerrenda.
OHZ	Ondasun Higiezinaren gaineko Zerga.
PFEZ	Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga.
SPKL	9/2017 Legea, azaroaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuei buruzkoa, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB zuzentarauen transposizioa egiten duena Espainiako ordenamendu juridikora.
TAOAL	7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Toki Araubidearen Oinarriak Arautzen dituen.
TMIZ	Trakzio Mekanikodun Ibilgailuen gaineko Zerga.
TTEE	Toki Entitateak.





Herri-Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

I. SARRERA

Herri-Kontuen Euskal Epaitegiak otsailaren 5eko 1/1988 Legeak eta Epaitegiaren Osoko bilkurak onetsitako Lan Programak agindutakoari jarraikiz, Aiarako Udalaren 2020ko Kontu Orokorraren fiskalizazio-lana mamitu du.

Fiskalizazio-lan honek honako alderdi hauek besarkatzen ditu:

- Legezketasuna: aurrekontuaren honako atal hauetan ezargarria den arautegia bete izana: aurrekontua, zuzenbide publikoko sarrerak, zorpetzea eta finantza-eragiketak, langileria, obren kontratazioa, zerbitzuak eta hornidurak eta dirulaguntzen emakida. Azterketa lan hau fiskalizazioaren ekitaldiari dagokio, beharrezko irizten diren beste ekitaldi batzuei buruzko egiaztatzeak egitea kaltetu gabe, fiskalizazio-gai den ekitaldian eragina dutelako.
- Kontabilitatea: Kontu Orokorra ezargarri zaizkion kontularitzako printzipioekin bat datorrela egiaztatzea. Kontu Orokorrak honako hauek besarkatzen ditu: Udalaren ondarearen emaitza ekonomiakoaren kontua eta oroitidazkia ez ezik, aurrekontuaren likidazioa ere bai.
- Lanaren zabalak ez du gastuaren efikaziari eta efizientziari buruzko azterlan berariazkorik besarkatu; ezta, kudeaketa prozedurei buruzkorik ere. Alabaina, fiskalizazioan sortu diren alderdi partzialak Txosten honen III. Idazpuruan aztertu ditugu.
- Udalaren egoera ekonomikoaren finantza analisia.

Aiarako udalerriak 2.968 biztanle zituen 2020ko urtarrilaren 1ean eta Aiarako Kuadrillako kide da (HHSen kudeaketa eta sustapen ekonomikoa eta enplegua, besteak beste) eta Kantauriko Urkidetza (uraren ziklo integralaren kudeaketa) eta Haurreskolak (haurtzaindegien kudeaketa) partzuergoetakoa.



II. IRITZIA

II.1 LEGEA BETETZEARI BURUZKO IRITZIA

1. 42.979 euroan esleitutako kontratu batean (5. espedientea A.12an), ekonomia- eta finantza-kaudimena egiaztatzeko baldintza gisa eskatzen den urteko gutxieneko negozio-bolumena kontratuaren balio zenbatetsiaren bat eta erdi halako baino handiagoa da (SPKLren 87.1 artikulua), eta 10 urteko lanbide-esperientzia eskatzen da kaudimen teknikoa egiaztatzeko, behar bezala justifikatu gabe.

Epaitegi honen iritzira, aurreko paragrafoan zehaztu den ez-betetzea alde batera, Aiarako Udalak zuzentasunez bete du 2020ko ekitaldian ekonomia-finantzaren jarduera arautzen duen lege arautegia.

II.2 URTEKO KONTUEI BURUZKO IRITZIA

1. Ez dago euskarri egoki eta behar hainbatekorik jakiteko Udalaren 2020ko abenduaren 31ko Balantzearen ibilgetu ez finantzarioko saldoek jasotzen duten ondasunen eta eskubideen egiazko egoera, ezargarriak zaizkien balorazio-printzipioei eta -arauei jarraikiz (ikus A.8).

Epaitegi honen iritzira, aurreko paragrafoan adierazitako salbuespena alde batera, Aiarako Udalaren Kontu Orokorra osatzen duten entitateen kontuek alderdi esanguratsu guztietan 2020ko ekitaldiaren jarduera ekonomikoa eta 2020ko abenduaren 31ko ondarearen eta finantza egoeraren isla fidela erakusten dute; baita, data horretan amaitutako urteko ekitaldiari dagozkion eragiketen eta eskudiruzko fluxuen emaitzena ere, ezargarria den finantza informazioaren arau-esparruaren arabera eta, zehazki, araudian jasotako kontularitzako printzipioen eta irizpideen arabera.



III. BARNE KONTROLEKO SISTEMEI ETA KUDEAKETA PROZEDUREI BURUZKO IRIZPENAK

Atal honetan jasotzen dira jarduera ekonomikoa eta finantzarioa arautzen duten printzipioak betetzea nabarmen eragiten ez duten akatsak eta kudeaketa hobetzeko agerian jartzen diren prozedura-alderdiak.

III.1 AURREKONTUA ETA KONTABILITATEA

- 2020ko ekitaldirako Aurrekontu Orokorra ez zen behin betiko onartu 2019ko abenduaren 31 baino lehenago (ikus A.2).
- Ekitaldiko finantzaketa-desbideratzeak aurrekontuaren likidazioak erakusten duena baino 54.072 euro txikiagoak dira, eta aurrekontu-emaizta doitu egin beharko da zenbateko horretan. Zuzenketa horrek ez du eraginik Gastu orokorretarako diruzaintza geldikinean.
- Udalak azterketa bat egin beharko luke obra handietatik datozen eraikuntza- eta eraispén-hondakinen kudeaketa egokia bermatzeko eraturako fidantzen eskagarritasunari dagokionez, 2020aren amaieran 127.126 euroren saldo metatua baitu (ikus A.10).

III.2 TRANSFERENTZIAK ETA EMANDAKO DIRULAGUNTZAK

- Dirulaguntzen Datu-base Nazionalari informazioa emateko betebeharrak ez dira betetzen dirulaguntza izendun eta zuzenen kasuan, eta lehia bidezko erregimenean izapidetutako dirulaguntzen kasuan, deialdien oinarriak baino ez dira betetzen.

III.3 KONTRATAZIOA

Kontratazio-espedienteak (ikus A.12)

Fiskalizazio-gai izan den urtean indarrean zeuden bost kontratu aztertu ondoren, honako alderdi hauek azalerratu zaizkigu:

- 481.916 euroan esleitutako kontratu bati dagokion lizitazioa (4. espedienteak) ez zen BOEn argitaratu, nahiz eta EBAOn eta ALHAOn argitaratu zen.
- Guztira 336.332 euroan esleitutako hiru kontratutan (1, 2 eta 5 zk. espedienteak) alkatea da kontratazio-atala eta aldi berean kontratazio mahaiko burua; horrek ez du egitekoen ezinbesteko bereizketa errespetatzen.
- 293.353 euroan esleitutako zerbitzu kontratu baten esleipen-ebazpenek (1. eta 2. espedienteak) ez dute ezargaria den hitzarmen kolektiboari buruzko informaziorik jasotzen.
- 481.816 euroan esleitutako kontratu batean (4. espedienteak), behin betiko bermearen zenbatekoak legez eskagarri den hura gainditzen du, kalkulua egiteko balizko luzapenak hartu baitira aintzat.

- 293.353 euroan esleitutako bi obra egitean (1. eta 2. espedienteak) bi hilabete eta erdi baino gehiagoko atzerapenak gertatu dira, hurrenez hurren guztira 8 hilabete eta erdiko epea eta 3 hilabeteko hasierako epea izanik, eta ez dago jasota epea luzatu denik edo kontratistari zigorrik ezarri zaionik.
- Aurreko paragrafoan aipatutako lehenengo kontratuan, 4 hilabeteko hasierako epea adierazitako guztizko epera arte lau luzapenen bidez luzatu zen. Luzapen horietako bi eta zerbitzu bati dagokion beste bat (3. espedienteak) epez kanpo onartu ziren, luzatutako kontratua eta hasierako kontratua gauzatzeko epea amaitutakoan, hurrenez hurren.

Administrazio kontratazioko espedienterik gabeko gastuak

Kontratu txikiaren prozedura bidez gauzaturako kontratazioak aztertzean ikusi dugu energia elektrikoa hornitzeagatik 28.857 euroren gastuak egin direla eta horiek prozedura sinplifikatu laburtu bidez izapidetu behar ziratekeen.

III.4 BESTE BATZUK

Gardentasuna

Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legea zuzen betetzeko, Udalak webgunean argitaratu behar lituzke, besteak beste, urteko kontuen, dirulaguntzen eta hitzarmenen gaineko informazio gaurkotua ez ezik, tokiko ordezkarien ondasunen urteko aitorpenei eta dedikazioa duten kargudunen ordainsariei buruzko datuak.

Ondarea eta ondasun-zerrenda

Udalak ez du Udalbatzak onartutako ondasun eta eskubide guztien inbentariarik, ez eta Lurraren Ondare Publikoa osatzen duten ondasun eta baliabideenik ere.

Hornitzaileei ordaintzeko batez besteko epeei buruzko informazioa

2020ko urtean ez ziren hornitzaileekiko ordainketa-epeak bete izanari buruzko hiruhileko txostenak egin



IV. FINANTZAREN ANALISIA

Udalak azken ekitaldietan likidatutako magnitude nagusien bilakaera honako taula honetan dago zehaztua.

	Euroak milakotan			Euroak biztanleko		
	URTEA			URTEA		
	2018 (*)	2019 (*)	2020	2018	2019	2020
Zerga zuzenak, zeharkakoak eta tasak (1, 2 eta 3 kap.).....	942	929	1.051	318	312	354
Transferentzia eta dirulaguntza korr. (4. kap.).....	1.261	1.390	1.157	425	468	390
Ondare sarrerak (5. kap.).....	18	5	5	6	2	2
A. Sarrera korronteak.....	2.221	2.324	2.213	749	782	746
Langile-gastuak (1. kap.).....	565	631	645	190	212	217
Ondasun korronteen erosketa eta zerbitzuak (2. kap.).....	714	734	598	241	247	202
Transferentzia eta dirulaguntza korr. (4. kap.).....	659	698	700	222	235	236
B. Funtzionamendu-gastuak.....	1.938	2.063	1.943	653	694	655
Aurrezki gordina (A-B).....	283	261	270	96	88	91
- Gastu finantzarioak (3. kap.).....	2	2	2	1	1	1
Emaitza korrontea.....	281	259	268	95	87	90
- Maileguen amortizazioa (9. kap.).....	-	-	-	-	-	-
Aurrezki garbia.....	281	259	268	95	87	90
Inbertsio errealen besterentzea (6. kap.).....	-	-	-	-	-	-
Jasotako kapital transferentziak (7. kap.).....	169	74	178	57	25	60
- Inbertsio errealak (6. kap.).....	331	201	261	112	68	88
- Emandako kapitalezko dirulaguntzak (7. kap.).....	71	67	63	24	22	21
Kapitalezko eragiketen emaitza.....	(233)	(194)	(146)	(79)	(65)	(49)
Eragik. ez finantzarioaren emaitza (1etik 7rako kap.).....	48	65	122	16	22	41
Diruzaintza geldikina.....	616	673	740	208	226	249
GODG.....	588	590	591	198	199	199
Zorpetzea.....	-	-	-	-	-	-

(*) HKEEK fiskalizatu gabeko datuak.

Sarrera korronteak: 2019an % 5 inguruko hazkundera izan dute aurreko ekitaldiarekin alderatuta, eta hori konpentsatu egin da 2020an izandako beherakadarekin, aldi horretako aldakuntza osoa ez baita oso esanguratsua izan. Hona hemen bariazio azpimarragarrienak:

- **Zerga zuzenak, zeharkakoak, tasak eta bestelako sarrerak:** Diru-sarrera horiek % 12ko igoera izan dute aztertutako aldiaren, azken ekitaldian nagusiki, 2018 eta 2019 artean ia ez baitute aldaketarik izan. Aipatutako igoera hori ingurumen-arloko arau-hausteei lotutako zehapenak 2020ko ekitaldian kontabilizatzearen ondorioa da, 121.200 euroren zenbatekoan (ikus A.3).
- **Transferentziak eta dirulaguntza korronteak:** Diru-sarrera horiek % 10eko igoera izan dute 2019an, aurreko ekitaldiarekin alderatuta, nahiz eta 2020an izandako bilakaera negatiboaren ondorioz, aztertutako aldiaren guztizko bariazioak % 8 egin duen behera. Aipatutako bilakaeran bereziki eragiten dute zerga itunduetako partaidetzari dagozkion diru-sarrerak (FOFEL), aztertutako hiru ekitaldietan kapitulu honetan erregistratutako diru-sarreraren % 90 inguru baitira.



Herri-Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

Funtzionamendu-gastuak: Aztertutako aldian ez da ia aldaketarik erregistratu osotasunean; izan ere, gastuak 2019an izandako % 6tik gorako igoera konpentsatu egin da 2020an erregistratutako murrizketarekin. Hona hemen alderdi esanguratsuenak aurrekontuko kapituluaren arabera:

- **Pertsonaleko gastuak:** 2019 eta 2020ko ekitaldietan % 12ko eta % 2ko igoerak izan dira, hurrenez hurren, eta aldi osoko bariazioa guztira % 14koa izan da. Lehenengo igoerari dagokionez, Lanbidek finantzatutako enplegu-planen bidez kontratatutako langileen kostuak bereziki eragiten du gastuaren igoeran, baita karrerako funtzionario baten absentzia ordezkatzeko egindako kontratazioak eta aplikatutako ordainsari-igoerak ere. Gastuak 2020an izandako bariazioa, nagusiki, azken kontzeptu honi zor zaio (ikus A.5).
- **Ondasun korronteen eta zerbitzuen kontratazioa:** Gastu horiek %16 jaitsi dira aztertutako aldian, eta jaitsiera hori 2020ko ekitaldian izan da nagusi. Bereziki nabarmendu da herriko jaiei eta nekazaritza- eta abeltzaintza-azokei lotutako gastuen beharakada.
- **Transferentziak eta dirulaguntza korronteak:** - Gastu horiek %6 igo dira 2019an, aurreko ekitaldiarekin alderatuta, eta igoera hori bat dator aldiko bariazio osoarekin; izan ere, 2020an, gastua 2019koen oso antzeko zifretan dago. 2019an izandako gorakadaren aldean, Aiarako Kuadrillarako transferentziek eragin berezia dute, eta horiek, 2020ko ekitaldian, berriz ere gora egin dute, nahiz eta gehikuntza hori konpentsatzen duen beste laguntza batzuk murrizteak, batez ere kultura- eta hezkuntza-elkarteei zuzendutakoak.

Aurrezki gordina eta aurrezki garbia: Bi magnitudeak ia berdinak dira, ez baitago zorpetzerik, eta saldo positiboak erakusten dituzte aztertutako aldiko hiru ekitaldietan. 2019an %8 murriztu badira ere, 2020an izandako igoeraren ondorioz, epealdiko murrizketa osoa ez da %5era iristen eta 2018ko ekitaldian sarrera arrunten %13 izatetik 2020an horien %12 izatera igaro da.

Kapital-eragiketen emaitza: Magnitude honek saldo negatiboak izan ditu aztertutako ekitaldi guztietan, nahiz horietako bakoitzean sortutako aurrezki garbiak estaltzen dituen kapital-eragiketen aipatutako defizitak.

Eragiketa ez-finantzarioen emaitza: Positiboa da aztertutako ekitaldi guztietan eta goranzko joera du, gainera, aztertutako aldian % 150etik gorako igoerarekin.

GODG: Apenas izan duen aldaketarik aztertutako aldian, nahiz joera zertxobait gora egitekoa den.

Zorpetzea: Ez dago zorpetzerik aztertutako ekitaldietarik batean ere.



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia
Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

Ondorioa: Udalak egoera ekonomiko osasuntsua erakusten du eta behar hainbateko baliabideak ditu ohiko jarduerari eusteko eta etorkizuneko inbertsioei zorpetu beharrik izan gabe aurre egiteko.

Aurrekontuaren egonkortasuna: AFAk 2020ko abenduaren 9ko erabaki bidez erabaki zuen Arabako toki erakundeen 2020ko eta 2021eko arau fiskalak etetea, nahiz orientazio modura gehienezko desegonkortasun-tasa erreferentziazko batzuk zehaztu zituen. Udalari dagokionez, udal artekaritzak txostena egin zuen eta honako hau jasotzen du aurrekontuaren likidazioa dela-eta:

- Aurrekontuaren egonkortasunari buruzko helburua bete da, behin GODG bidez finantzatutako gastuak murriztu ondoren eragiketa ez finantzarioen superabita eskuratu baita.
- Gastu zenbagarriak behera egin du 2019ko ekitaldiaren aldean.
- 2020ko abenduaren 31n zorrik eza.



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

V. URTEKO KONTUAK

2020ko ekitaldiko aurrekontuaren likidazioa

Euroak milakotan

DIRU-SARR.	AURREKONTUA				ESKUB. KITAT.	KOBRA. KOBRA.	KOBRA. GABE	%
	ERANSK.	HASIERAK.	ALDAK.	BEHIN BET.				
1. Zerga zuzenak.....	A.3	673	-	673	687	650	37	% 102
2. Zeharkako zergak.....	A.3	30	-	30	31	30	1	% 103
3. Tasak eta bestelako sarrerak.....	A.3	246	-	246	333	198	135	% 135
4. Transferentzia korranteak.....	A.4	1.067	-	1.067	1.157	1.086	71	% 108
5. Ondare-sarrerak.....	A.8	5	-	5	5	4	1	% 100
7. Kapitalezko transferentziak.....	A.4	-	151	151	178	2	176	% 118
8. Aktibo finantzarioak.....		-	533	533	-	-	-	E/E
SARRERAK, GUZTIRA		2.021	684	2.705	2.391	1.970	421	(*) % 110

(*) Exekuzioaren % kalkulaterakoan Diruzaintza geldikina txertatzearen eragina zuzendu da.

Euroak milakotan

GASTUAK	AURREKONTUA				OBLIG. AITORT.	ORDAIN. ORDAINK.	ORDAIN. GABE	%
	ERANSK.	HASIERAK.	ALDAK.	BEHIN BET.				
1. Pertsonaleko gastuak.....	A.5	617	30	647	645	632	13	% 100
2. Ondasun arruntean eta zerbitz. gastuak .	A.6	762	91	853	598	547	51	% 70
3. Gastu finantzarioak.....		2	1	3	2	2	-	% 67
4. Transferentzia korranteak.....	A.7	566	200	766	700	664	36	% 91
5. Kred. glob. eta bestel. ustekabekoak.....		6	(1)	5	-	-	-	E/E
6. Inbertsio errealak.....	A.8	68	290	358	261	259	2	% 73
7. Kapitalezko transferentziak.....	A.7	-	73	73	63	-	63	% 86
GASTUAK, GUZTIRA		2.021	684	2.705	2.269	2.104	165	% 84

AURREKONTU ITXIEN BARIAZIOA

Euroak milakotan

	ERANSK.	HASIERAKO		KOBRA./ ORDAIN.	AZKEN ZORRA
		ZORRA	BALIOG.		
Kobratzeko dauden saldoak.....	A.9	376	-	147	229
Ordaintzeko dauden saldoak.....		288	5	258	25
AURREKONTU ITXIEN EMAITZA			5		



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

AURREKONTUAREN EMAITZA	Euroak milakotan
Eskubide aitortu garbiak.....	2.391
Obligazio aitortu garbiak.....	(2.269)
EKITALDI ARRUNTAREN AURREKONTUKO EMAITZA	122
EKITALDI ITXIEN AURREKONTUKO EMAITZA	5
Ekitaldiko finantzaketaren desbideratzeak.....	67
GODG bidez finantzatutako gastuak.....	315
AURREKONTUAREN EMAITZA DOITUA	375

DIRUZAINZA GELDIKINA	Euroak milakotan
FUNTS LIKIDOAK (A)	676
KOBRATZEKO DAUDEN SALDOAK (ikus A.9) (B)	651
Aurrekontu arruntetik.....	421
Aurrekontu itxietatik	229
Aurrekontukoak ez diren beste hainbat eragiketetatik	1
ORDAINTZEKE DAUDEN OBLIGAZIOAK (ikus A.10) (C)	393
Aurrekontu arruntetik.....	165
Aurrekontu itxietatik	25
Aurrekontukoak ez diren beste hainbat eragiketetatik	203
APLIKATZEKO DAUDEN KONTU-SAILAK (D)	(1)
DIRUZAINZA GELDIKINA GUZTIRA (F=A+B-C+D)	933
Zalantzazko kobragarritasuneko saldoak (ikus A.9)	(193)
Atxikitako finantzaketa-soberakina	(149)
GODG	591
ZORPETZEA 2020.12.31N	-



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

EGOERAREN BALANTZEAK 2020 ETA 2019KO abenduaren 31n				Euroak milakotan			
	ERANSKINA	2020	2019		ERANSKINA	2020	2019
AKTIBO EZ-KORRONTEA		4.306	4.496	ONDARE GARBIA		5.046	5.169
Ibilgetu ukiezina	A.8	12	16	Ekarritako ondarea		3.781	3.781
Ibilgetu materiala	A.8	4.294	4.480	Sortutako ondarea		1.265	1.388
AKTIBO KORRONTEA		1.134	1.148	PASIBO KORRONTEA	A.10	394	475
Zord. eta kobr. bst knt b.	A.9	458	243	Epe motzeko zorrak		171	156
Eskud. eta best. akt. baliok.	(*)	676	905	Hartzek. eta ordain.. bst kontu b.		223	319
AKTIBOA, GUZTIRA		5.440	5.644	ONDARE GARBIA ETA PASIB., GUZTIRA		5.440	5.644

(*) 2020ko ekitaldi itxierako saldoa ia oso-osorik kontu korronteetako gordailuei dagokie, eskudiruko 3.573 euro izan ezik.

2020ko eta 2019ko ekitaldietako Ondarearen Emaitza Ekonomikoaren Kontua		Euroak milakotan	
		2020	2019
Zerga eta hirigintzako diru-sarrerak		901	869
Jasotako transferentziak eta dirulaguntzak		1.336	1.464
Kudeaketa arrunteko beste sarrera b.		146	49
KUDEAKETA ARRUNTEKO SARRERAK GUZTIRA		2.383	2.382
Pertsonaleko gastuak		(679)	(667)
Transferentziak eta emandako dirulaguntzak		(764)	(765)
Kudeaketa arrunteko beste gastu batzuk		(563)	(697)
Ibilgetuaren amortizazioa (ikus A.8)		(451)	(428)
KUDEAKETA ARRUNTEKO GASTUAK GUZTIRA		(2.457)	(2.557)
KUDEAKETA ARRUNTAREN EMAITZA (AURREZKIA EDO AURREZKI-EZA)		(74)	(175)
Arruntak ez diren beste partida batzuk		7	15
ERAGIKETA EZ FINANTZARIOEN EMAITZAK		(67)	(160)
Sarrera finantzarioak		1	1
Gastu finantzarioak		(2)	(2)
Balioaren narriadura, bajak eta finantza-aktibo eta -pasiboen besterentzeak		(59)	(14)
FINANTZA ERAGIKETEN EMAITZA		(60)	(15)
EKITALDIAREN EMAITZA GARBIA (AURREZKIA EDO AURREZKI-EZA)		(127)	(175)



ERANSKINAK

A.1 FISKALIZATUTAKO ERAKUNDEAREN IZAERA

Aiarako Udala Administrazioiko toki entitatea da, oinarritzko ezaugarrietan Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legeak eta apirilaren 7ko 2/2026 Legeak, Euskadiko Toki Entitateei buruzkoak, arautzen dutena. Aipatutako legeek beren artikuluetan udalek ematen dituzten eskumen edo zerbitzu publikoak definitzen dituzte, besteak beste: segurtasuna, garbiketa-zerbitzua, suteak itzaltzeko zerbitzua, ur-hornidura, saneamendu-sarea, argiteria publikoa, hirigintza-diziplina, kultura- eta kirol-jarduerak, etab.

Udalek zerbitzuak zuzenean edo zeharka eman ditzakete. Udalak berak kudeaketa zuzena gauza dezake edo toki entitate autonomoak, merkataritzako sozietate publikoak, mankomunitateak eta partzuergoak sortuta.

A.2 AURREKONTUA ETA KONTABILITATEA

2020ko ekitaldirako aurrekontua 2020ko ekainaren 15eko Udalbatzak onetsi zuen hasiera batean eta Arabako Aldizkari Ofizialean hil bereko 26an eman zen argitara. Jendaurrean jartzeko epea erreklamaziorik jaso gabe igaro ondoren, behin betiko onartutako aurrekontua 2020ko abuztuaren 12an argitaratu zen ALHAOn.

2 milioi euroren hasierako aurrekontua % 34 gehitu zen eta behin betiko aurrekontua 2,7 milioi eurora iritsi zen. Hona hemen, 2020ko aurrekontu-aldaketak kapituluka xehakaturik:

KAPITULUAK	Euroak milakotan				
	KREDITU TXERTAK.	KREDITU TRANSFER.	KREDITU GAIKUNTZA	KREDITU GEHIGAR.	GUZTIRA
1. Pertsonaleko gastuak.....	-	-	-	30	30
2. Ondasun korronteko eta zerbitz. gastuak ..	-	(15)	-	106	91
3. Gastu finantzarioak	-	1	-	-	1
4. Transferentzia korrontekak	-	14	-	186	200
5. Kred. glob. eta bestel. ustekabeak	-	(1)	-	-	(1)
6. Inbertsio errealak	199	(1)	23	69	290
7. Kapitalezko transferentziak	-	2	-	71	73
GASTUAK, GUZTIRA	199	-	23	462	684

Adierazitako aurrekontuko ia aldaketa gehienak 2019ko ekitaldi itxieran finantzatu ziren Diruzaintza Geldikin erabilgarriaren zati bat baliatuta, 533.292 euroren zenbatekoarekin, eta kapitalezko transferentzien bidez, 151.353 euroan.

Ekitaldian zehar aurrekontua aldatzeko hamahiru espediente izapidetu ziren, horietako lau Udalbatzak onartu zituen eta gainerako bederatzia Alkatetzaren Dekretu bitartez. Hona hemen aurrekontuko aldaketa esanguratsuenak:



Herri - Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

	Euroak milakotan
PROIEKTUA	ZENBAT.
Udal igerilekuetan gune estalia jartzea (*).....	105
Luiaondoko Barrena kalean hiria berroneratzeko proiektua (*).....	79
Beste txiki batzuk.....	15
KREDITU TXERTATUAK GUZTIRA	199
Igerilekuko aldageletan estalkia aldatzea.....	23
KREDITU GAIKUNTZAK GUZTIRA	23
Udalerriko administrazio-batzordeei transferentzia korronteak eta kapital.	208
HAPO Uholde-arriskuari buruzko azterlana.....	81
COVID-19aren ondorio ekonomikoak arintzeko laguntzak.....	40
Etxaurren Ikastola HLHIn hobekuntzak	34
Luiaondoko erabilera anitzeko espazioa egokitzeko proiektua idaztea.....	20
Beste txiki batzuk.....	79
KREDITU OSAGARRIAK GUZTIRA	462

(*) Ikus obra nagusiari dagokion espedientearen analisisa A.12. atalean.

2020ko ekitaldiko Aurrekontuaren likidazioa 2021eko otsailaren 11ko Alkatetzaren Dekretu bidez onartu zen eta Kontu Orokorra urte bereko irailaren 23ko Udalbatza bitartez.

A.3 ZERGAK, TASAK ETA BESTELAKO SARRERAK

Hona hemen 2020ko ekitaldian zerga zuzen, zeharkako, tasa eta bestelako sarrerengatik kitaturiko eskubideen xehakapena:

	Euroak milakotan
KONTZEPTUA	ESKUBIDE KITATUAK
OHZ.....	500
TMIZ.....	146
JEZ.....	41
ZERGA ZUZENAK, GUZTIRA	687
EIOZ	31
ZEHARKAKO ZERGAK GUZTIRA	31
Zaborrak biltzeko zerbitzu publikoa emateagatik tasak	143
Hertsapen-isunak eta zehapenak ingurumenaren arloko arau-hausteengatik	121
Enpresa hornitzaileek lurzorua/hegala/lurpearen aprobetxamendu bereziagatik tasak.....	41
Beste txiki batzuk	28
TASAK ETA BESTELAKO SARRERAK GUZTIRA	333
1, 2 eta 3 KAPITULUAK GUZTIRA	1.051

2017an, Udalak erabaki zuen Kantauriko Urkidetza partzuergoari lagako ziola uraren ziklo integralaren kudeaketa eta abonatuaren eta diru-bilketaren kudeaketa, kudeaketa-mandatuaren figura baliatuta, eta udalaz gaindiko erakundeak bere gain hartuko zituela zerbitzuaren diru-sarrerak eta gastuak; horregatik ez dira kontabilitatean erregistratzen.



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

Erantsitako taulan zerrendatutako gainerako zerga, tasa eta sarrerei dagokienez, Udalak bere gain hartu du horien kudeaketa borondatezko aldian eta 1996ko irailaz geroztik lankidetza-hitzarmen bat du AFArekin betearazte bidean diru-bilketa egiteko. Aipatu behar da Udalak ez duela eskatzen HILBIZ, zerga horrek duen hautazko izaera dela eta.

Zehapenak ingurumenaren arloko arau-hausteengatik

2017. eta 2020. urteen artean, ingurumenaren arloko arau-hausteengatik hainbat zehapen-espeditu izapidetu dira 2011ko ekitaldian hondakin ez-arriskutsuak balorizatzeko lizentzia isiltasun administratibo bidez lortu zuen merkataritza-enpresa baten aurka. Erantsitako taulan laburbiltzen dira hertsapen-isunak eta horien ondorioz ezarritako zehapenak, bai eta haien kontabilizazioa ere:

KONTZEPTUA	Euroak milakotan		
	ESKUBIDE AITORTUAK	KOBRATU KOBRA.	ZAIN
Hertsapen-isunak eta 2017, 2018 eta 2019an ezarritako zehapenak	25	25	-
Hertsapen-isunak eta 2020an ezarritako zehapenak	121	1	120
GUZTIRA	146	26	120

2020an kontabilizatutako diru-sarrerak bi hertsapen-isuni dagozkie, bakoitza 600 eurorena, eta zehapen larri bati eta arin bati, 108.000 eurorena eta 12.000 eurorena, hurrenez hurren. Enpresak hertsapen-isunetako baten ordainketa bere gain hartu du, eta auzi-bidean errekurritu du gainerako zenbatekoen ordainketaren bidez kotasuna; ebatzteke daude dagozkion prozedura judizialak.

A.4 TRANSFERENTZIEK ETA DIRULAGUNTZEK ERAGINDAKO SARRERAK

2020ko ekitaldian transferentzia eta dirulaguntza arrunt eta kapitalezkoengatik kitatutako eskubideak honako hauek izan dira:

KONTZEPTUA	Euroak milakotan	
	KORRONT.	KAPITAL.
Estatuarenak	4	-
EA Erenak	12	152
AO: Hiri-berroneratzea Luiaondoko Barrena kalean (Leader programa)	-	100
AO: espazio estalia instalatzea udal-igerilekuetan (Leader programa).....	-	52
AO: Bake epaitegiko gastuak	2	-
Osakidetza: Medikuen kontsulta mantentzeko lanak.....	10	-
ALHrenak	1.141	26
AFA: Zerga itunduetan partaidetza FOFEL.....	1.018	-
AFA: Udal igerilekuetan gunee estalia jartzea	-	23
AFA: Estatuko eta probintziako kuotak JEZ 2019	14	-
Gizarte Ongizaterako Foru Erakundea: eguneko arretarako landa-zentroa	50	-
Gizarte Ongizaterako Foru Erakundea: Oinarrizko gizarte-zerbitzuak	39	-
Aiarako kuadrila: Enplegua sustatzeko tokiko ekintzak (*).....	11	-
ALHren beste zenbait dirulaguntza.....	9	3
GUZTIRA	1.157	178

(*) Aiara kuadrillak izapidetutako Lanbideren dirulaguntza, hainbat udalerritan tokiko enplegu-programak garatzeko.

Zerga itunduetako partaidetzari dagokionez, komeni da adieraztea Udalaren aldeko saldo bat dagoela, Toki Finantzaketarako Foru Funtzaren 2020ko likidazioaren ondoriozkoa, 46.053 eurorena, eta erregistratzeke dagoela.

A.5 PERTSONALEKO GASTUAK

Hona hemen kapitulu honen xehakapena 2019ko eta 2020ko ekitaldietako Aurrekontuaren likidazioan, LZn jasotako lanpostu kopurua eta 2020ko abenduaren 31ko plantilla:

KONTZEPTUA	Euroak milakotan			
	OBLIGAZ. AITORT. 2020	OBLIGAZ. AITORT. 2019	LANPOSTU KOP.	
			LZ	20/12/31 PLANTILLA
Udalkideen ordainsariak.....	47	46	E/E	1
Funtzionarioen ordainsariak	427	402	13	(1) 10
Aldi baterako lan kontratuko langileen ordainsariak	25	37	E/E	5
Gizarte Segurantza	130	130		
Elkarkidetza.....	11	11		
Beste gizarte-gastu batzuk	5	5		
LANGILERIA GASTUAK, GUZTIRA	645	631	13	16

(1) Bitarteko funtzionario bat barne hartzen du.

Ordainsariak

Udalbatzak, 2020ko otsailaren 20an, langileen ordainsariak % 2 handitzea erabaki zuen, 2020ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin, Sektore Publikoaren eremuan ordainsarien arloko premiazko neurriak onartzen dituen urtarrilaren 21eko 2/2020 Errege lege-dekretuan xedatutakoaren arabera.

Plantillaren bilakaera

2020ko ekitaldian izan diren plantillako mugimenduak ondotik laburbildu ditugu:

	Kopurua	
	ALTAK	BAJAK
Enplegua sustatzeko aldi baterako lan-kontratuko langileak	4	1
Aldi baterako lan-kontratuko beste langile batzuk (*).....	2	1
GUZTIRA	6	2

(*) Beharizan premiazko eta geroraezinei aurre egiteko kontratatutako errefortzuko langileak.

A.6 ONDASUN ARRUNTEN ETA ZERBITZUEN KONTRATAZIOA

Hona hemen kapitulu honetan erregistraturiko kontzeptu esanguratsuen xehakapena:

DESKRIBAPENA	Euroak milakotan	
	OBLIGAZ.	AITORTUAK
Errentamenduak		7
Konponketak, mantentze-lanak eta zaintza		108
Ikastola eta Haurtzaindegia		56
Beste ibilgetu bat		52
Bulegoko materiala		10
Hornidurak		31
Komunikazioak		25
Aseguru-primak		15
Tributuak		2
Hainbat gastu		47
Kanpoko enpresek egindako lanak		319
Udal eraikinen garbiketa (ikus A. 12)		124
Udal-igerilekuak eta horien instalazioak mantentzea eta zaintzea (ikus A. 12)		34
Bide eta errepide nagusietarako lotuneen garbiketa mekanikoko zerbitzua		24
Aholkularitza juridikoko zerbitzuak		21
Herriko argiteriaren mantentze-lana		20
Kanpoko enpresek egindako beste lan batzuk		96
Dietak, mugikortasuna eta lekualdaketak		34
GUZTIRA		598



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

A.7 TRANSFERENTZIAK ETA EMANDAKO DIRULAGUNTZAK

2020ko ekitaldian, Udalak transferentzia eta dirulaguntza korrontek eman ditu; hona hemen xehakapena:

KONTZEPTUA	Euroak milakotan	
	KORRONT.	KAPITAL.
TRANSFERENTZIAK	504	-
Aiarako Kuadrilla (*).....	324	-
Udalerriko administrazio-batzarrak (*).....	136	-
Zabaia Landa Garapenerako Elkartea.....	18	-
Talde politikoei transferentziak (*).....	17	-
Beste txikiago batzuk (4 erakunde)	9	-
IZENDUNAK	137	-
Alday Fundazioa: Arespalditzako eguneko arretarako landa-zentroa (*).....	64	-
Etxaurren Ikastolako Ikasleen Gurasoen Elkartea: langile gastuak (*).....	55	-
Beste txikiago batzuk (9 onuradun)	18	-
LEHIA	46	60
Obra eta lansari teknikoetarako administrazio batzordeei dirulaguntzak	-	60
COVID-19aren ondorio ekonomikoak arintzeko laguntzak (*)	16	-
Kultura, kirol eta gizarte gaietan 2020ko urterako dirulaguntzak (*).....	15	-
Beste txikiago batzuk (3 dirulaguntza lerro)	15	-
ZUZENAK	12	3
BESTE BATZUK	1	-
GUZTIRA	700	63

(*) Aztertutako transferentziak eta dirulaguntzak.

A.8 INBERTSIO ERREALAK ETA AKTIBO EZ KORRONTEA

Hona hemen Udalaren aktibo ez korronteko kontuen 2020ko kontu-mugimenduak:

KONTZEPTUA	Euroak milakotan				
	SALDOA 20/1/1	6. KAP. GASTUAK	BIRSAILK.	AMORTIZ. ZUZKID.	SALDOA 20/12/31
IBILGETU UKIEZINA	16	-	-	(4)	12
IBILGETU MATERIALA	4.480	261	-	(447)	4.294
Eraikuntzak	-	26	(26)	-	-
Azpiegiturak.....	-	195	(195)	-	-
Beste ibilgetu material bat	4.480	40	221	(447)	4.294
AKTIBO EZ ARRUNTA GUZTIRA	4.496	261	-	(451)	4.306

Ibilgetuko saldoen aldaketak bat datoz dagokion aurrekontuko kapituluaren kontabilitatearen erregistratutako inbertsioekin, eta amortizaziorako zuzkidurak ere automatikoki erregistratzen dira, baja emandako edo guztiz amortizatutako ondasunak egon daitezkeela kontuan hartu gabe. Horren ondorioz ibilgetu materialaren epigrafe jakin batzuen amortizazio metatuak kontabilitateko balioa gaindi ez dezan, saldo guztiak ekitaldi itxiera bakoitzean “beste ibilgetu material bat” idazpuruan birsailkatuko dira. Lurraren Udala

Ondarea osatzen duten ondasunak ez dira balantzeko idazpuru bereizi batean kontabilizatzen, ez baitago horien inbentarioa besarkatuko duen ustiaketako erregistrorik.

Kontabilitateak ere ez ditu higiezinetakoinbertsioen saldoak jasotzen, nahiz eta 2020ko ekitaldian ondasun higiezinaren errentei dagozkien eskubide aitortuak ageri diren, 4.638 euroekin, ondare-sarreraren kapituluan.

A.9 ZORDUNAK

Kontabilitatean erregistraturiko zordunen eta kobratzeko beste kontu batzuen saldoek honako xehakapen hau dute:

		Euroak milakotan
KONTZEPTUA		ZENBAT.
Zordun ez aurrekontukoak.....		1
Aurrekontuko zordunak.....		650
Zalantzazko kobragarritasuneko saldoak.....		(193)
ZORDUNAK GUZTIRA		458

Aurrekontuko zordunak

Hona hemen 2020ko abenduaren 31n kobratzeko dauden Udalaren aurrekontuko eskubideen osaera eta antzinasunaren xehakapena:

						Euroak milakotan
KAPITULUAK	2017 eta lehen.	2018	2019	2020	GUZTIRA	
Zerga zuzenak	88	16	28	37	169	
Zeharkako zergak	-	-	-	1	1	
Tasak eta bestelako sarrerak.....	12	3	3	135	153	
Transferentzia korronteak	3	-	2	71	76	
Ondare-sarrerak.....	-	-	-	1	1	
Kapitalezko transferentziak	11	8	55	176	250	
AURREKONTUKO ZORDUNAK GUZTIRA	114	27	88	421	650	
Zalantzazko kobragarritasuneko saldoak					(193)	
AURREKONTUKO ZORDUN GARBIAK GUZTIRA					457	

Udalak nekez kobragarritzat edo ezinezkotzat jotzen ditu kontuetan sortu zirenetik 24 hilabetetik gorako antzinasuna duten bat, hiru eta bost kapituluetan behar bezala aitortutako eskubideak (ALHren otsailaren 9ko 3/2004 FAREN 48.6artikulua, Toki Entitateen Aurrekontuei buruzkoa). Gainera, bilketari buruzko datu historikoetan oinarrituta, zalantzazko kobragarritzat jotzen dituzte 2019ko eta 2020ko ekitaldietan jatorria duten behar bezala aitortutako eskubideen % 20, nahiz azken ekitaldikoko kasuan aurrekontuko kapituluaren lehenengo hiru kapituluak dagozkienak soilik hartu diren halakotzat.



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

A.10 HARTZEKODUNAK

Hona hemen 2020ko abenduaren 31n kontabilitatean erregistraturiko pasiboen xehakapena:

Euroak milakotan	
KONTZEPTUA	ZENBAT.
HARTZEKODUN EZ AURREKONTUKOAK	203
Jasotako bermeak eta gordailuak (*)	170
PFEZagatik Ogasun Publiko hartzekoduna.....	28
Bestelako hartzekodun ez aurrekontukoak	5
AURREKONTUKO HARTZEKODUNAK	190
Aurrekontu korrontetik	165
Aurrekontu itxietatik.....	25
APLIKATZEKO DAUDEN KOBRANTZAK	1
PASIBOA, GUZTIRA	394

(*) Saldoaren zatirik handiena, 127.126 euro, obra handietan sortutako eraikuntza- eta eraispén-hondakinen kudeaketa egokia bermatzeko gordailututako fidantzei dagokie.

A.11 HIRIGINTZAKO JARDUERAK ETA PLANEAMENDUA

Gaur egun, indarrean daude Aiarako udalerriko Planeamenduko Arau Subsidiarioak. Apirilaren 12ko 275/2005 Foru Aginduaren bidez onartu ziren behin betiko eta 2006ko otsailaren 17ko ALHAOn argitaratu zen haien testu arauemailea. Gerora, Arau Subsidiarioen aldaketa puntualak onartu dira, bai eta zenbait garapen-tresna ere.

HAPOn hasierako onarpena, zegokion Ingurumen Azterlan Estrategikoarekin batera, jendaurrean jarri zen 2018an, urtarrilaren 10ean eta martxoaren 16an ALHAOn iragarriak argitaratuta; ez dago erasota gerora bestelako izapiderik egin denik. Aipatzekoa da 2021eko irailean amaitzen dela plan orokorrak Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legea egokitzeke 15 urteko epea, behin betiko onespén emanda.



Herri - Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

A.12 KONTRATAZIOA

Kontratu mota bakoitzari ezargarriak zaizkion legezko prozedurak berrikusi ditugu, Udalak 967.704 euroren zenbatekoan esleitutako bost kontraturen lagin bat hartuta:

KONTRATUA	Euroak milakotan					
	ESLEIPENA			GASTUA 2020	AKATSAK	
	DATA	PROZED.	ZENBAT.		A	B
OBRAK						
1. Luiaondoko Barrena kalean hiria berroneratzeko proiektua	mai-19	Ireki sinp.	188	72	A3,4	B1,2
2. Udal igerilekuetan gun e estalia jartzea	aza-19	Ireki sinp.	105	107	A3,4	B1
ZERBITZUAK						
3. Udal-igerilekuak eta instalazioak mantentzea eta artatzea, uda sasoi an.....	mai-16	Irekia	150	34		B2
4. Udal eraikinen garbiketa.....	uzt-16	Irekia	482	124	A2,5	
5. Aholkularitza juridikoko kanpoko zerbitzu profesionalak...	eka-20	Irekia	43	11	A1,3	
GUZTIRA			968	348		

AKATSAK	Euroak milakotan	
	ESLEIP. ZENBAT.	ESPEDIENTE KOP.
A IZAPIDETZEA ETA ESLEIPENA		
1. Pleguetan aurreikusitako kaudimen-betekizunei buruzko akatsak (1)		1
2. Lizitazioen publikotasunari buruzko akatsak (2).....		1
3. Kontratazio Mahaiaren osaeran akatsak (2)		3
4. Esleipen-ebazpenean hitzarmen kolektiboari buruzko informazioa ez jasotzea (2)		2
5. Behin betiko bermearen zenbatekoari buruzko akatsak (2).....		1
B EXEKUZIOA		
1. Exekuzioan atzeraldiak (2)		2
2. Epez kanpoko luzapenak (2)		2

(1) Ikus II.1 atala.

(2) Ikus III.4 atala.





ALEGAZIOAK

ALEGAZIO OROKORRA

Herri-Kontuen Euskal Epaitegiak (aurrerantzean, HKEE) Aiarako Udalaren 2020 ekitaldiko jarduera ekonomikoa fiskalizatu du. Covid birusak sortutako osasun-alertaren ondorioz, urte hori ezohikoa da, gainerako arloetan bezala (ekonomia, lana, hezkuntza, osasuna, etab.), udal honen administrazio-jardueran eragin baitzuen.

2020ko martxoaren 14an, Gobernu Zentralak Covid-19ak sortutako osasun-krisiaren egoera kudeatzeko alarma-egoera deklaratu zuen maiatzaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuaren bidez alarma-egoera deklaratu zuen, eta, besteak beste, 2020ko martxoaren 14tik maiatzaren 22ko 537/2020 Errege Dekretuaren bidez alarma-egoera amaitu arte administrazio-prozedurak eten egin behar izan ziren. Hortaz, 2020ko ekainaren 1ean berriz eutsi zitzaizkien epeei.

Inguruabar horri denboraldi zehatzetan Udaleko langileen konfinamendua erantsi behar zaio. Horrez gain, telelanaren teknikak ez ziren oso eraginkorrak, batetik, ez zegoelako baliabide informatikorik (ordenagailuak, inprimagailuak, etab.) eta, bestetik, Udalak langile gutxi dituelako.

Egoera horrek guztiak zuzenean eragin die administrazio-espeditente guztiei. Batzuetan eragina handiagoa eta biziagoa izan da; beste batzuetan, berriz, albokoa baino ez; baina espeditente eta zerbitzu zehatzetan modu adierazgarrian eragin die epeei, luzapenei eta gainerako jarduketei. Espeditente eta zerbitzu horiek oinarritzkoak zirenez, ez zitzaion emateari utzi.

TXOSTENAREN ONDORIOEI BURUZKO ALEGAZIOAK

II.1 LEGEAK BETETZEARI BURUZKO IRITZIA

1.- Kontratuari buruz (A12n 5. espeditentea).

Alegazioa:

Fiskalizatu den kontratua zerbitzu intelektualak (aholkularitza juridikoa) emateko kontratua da. Lan-bolumena eta teknikari-kopuru urria (idazkari kontu-hartzaileak baino ez du profil tekniko juridikoa) kontuan hartuta, udal honentzat oso garrantzitsua da. Udal honek behar dituen gai guztiak eraginkortasunez, efizientziaz eta azkar ebazte aldera lantalde trebatua kontratatzeko xedez, goi-mailako kaudimen ekonomikoa eta, batez ere, profesionala eskatu ziren. Udal honetan zerbitzu hau funtsezkoa da, eta, horregatik, goi-mailako kaudimen hori eskatu ahal zitekeela ulertu zen.



II.2 URTEKO KONTUEI BURUZKO IRITZIA

1.- Balantzeko ibilgetuen saldoak

Alegazioa:

Aiarako Udalak 5.000 biztanle baino gutxiago ditu, beraz, Arabako Foru Aldundiaren finantza-zaintzaren gaineko zerbitzuak ditu, eta azken erakunde horretako langileek Udalari kontu-hartzen laguntzen diote. Idazkari kontu-hartzailea oso lanpetuta dago, pertsona bakarrean elkartzen baitira erakundeko bi eginkizun nagusiak. Laguntzari dagokionez, nagusiki, honetan datza: udal-aurrekontuaren likidazioa eta kontu orokorra egitea, eskatutako adierazleen berri ematea Ministerioari, etab. Horregatik, atal honetan ezin daiteke alegazio zehatzagoa egin. Hala ere, buru naizen erakunde honek konpromisoa hartzen du Arabako Foru Aldundiari kontuen iritzi honi buruz galdetzeko, etorkizunerako kontuan har dadin.

III.1 AURREKONTUA ETA KONTABILITATEA

- Udalak eraikuntza- eta eraipen-hondakinak behar bezala kudeatzeko osatu behar diren fidantzak eskatzeari buruzko analisia egin beharko luke (A.10).

Alegazioa:

Udal honen tamainari erreparatuta, langileen artean ez du hirigintza-teknikaririk eta teknikariak Aiarako Kuadrillakoak dira, Udalari zerbitzuak modu partzalean ematen dizkietenak. Gainera, udalerriak oso hedadura handia du, eta hirigintzako administrazio-espeditate asko daude. Hala, atzerapenak izan dira hirigintza-jardueraren zenbait sektoretan, bestea, beste, hondakinak kudeatzeko fidantzak itzultzearen esparruan. Arazoaz jakitun izanik, Udalak, ahal duen neurrian, ematen zaizkion urteko enplegu-programen bitartez fidantzak aztertu eta itzultzearen gaian lana arintzeko konpromisoa hartzen du.

III.2 TRANSFERENTZIAK ETA EMANDAKO DIRULAGUNTZAK

- Dirulaguntzen Datu Base Nazionalari informazioa ematearen gaineko eskakizuna ez da betetzen (...).

Alegazioa:

Arestian adierazi den bezala, Udalak oso langile gutxi ditu eta 2020an errealitate eta krisi sanitarioak erabat gainditu zuen ohiko lan-plangintza guztiak. Batzuetan langileek telelana egin behar izan zuten eta herritarrentzat lehentasunezkoak ziren beste premia batzuei erantzun behar izan zitzairen; hortaz, beste zeregin batzuk baztertu egin behar izan ziren, lehentasunezko zerbitzu publikoen garapenean efizientzia eta efikazia izateko, baina inola ere ez da izan legez ezarritako eskakizunak betetzeko utzikeriagatik edo borondate ezagatik.



III.3 KONTRATAZIOA

Kontratazio-espedienteak

- 4. kontratazio-espedientearen lizitazioa ez en BOEn argitaratu.

Alegazioa:

Espedientean ikusi da lizitazio-iragarkia EBAOn eta ALHAOn argitaratu zela, baina ez BOEn. Argi dago udal honek ez zuela izan kontratazioari publizitaterik ez emateko asmorik, bi aldizkari ofizialetan argitaratu baitzen, eta horietako bat publizitate handienekoa da. Beraz, ulertzen da iragarkia BOEn argitaratu ez izanak ez duela esan nahi lehia murriztu nahi izan denik; administrazio-espeditentea izapidetzean egindako hutsegite baten ondorio besterik ez da, eta hori ez da utzikeria (EBAOn argitaratzea nahiko garestia zen garai hartan) eta publizitatearen betekizuna betetzeko borondaterik eza; halaxe adierazten du beste bi aldizkari ofizialetan argitaratu izanak.

- Hiru kontratutan (1., 2. eta 5. espeditenteak) alkatea da kontratazio-organoa eta mahaiburua.

Alegazioa:

Udal honek ez zuen Kontrataziorako Kontsulta Batzordeen interpretazioen berri. Jarduketaren desegokitasuna ohartarazi ondoren (jarduketa hori ez dela inoiz izan administrazio-kontratazioaren arauak aldatzeko interesaren ondorio), azken hilabeteetan alkateari bere kontratazio-espeditentetan laguntzen zioten kontratazio-mahai guztietan egin da eginkizunen banaketa egokia, eta mahaiburua ez da alkatea izan, lehen alkateordea baizik. Kontratazio-mahaiaren azken lizitazio-prozesuei buruzko aktak igorri dira. Hala ere, Eusko Jaurlaritzaren kontratatzailearen profilean txertatutako dokumentuetan egiaztatu ahal izango da.

- Bi kontraturen adjudikazio-ebazpenek ez dute jasotzen aplikatzekoa den hitzarmen kolektiboari buruzko informaziorik.

Alegazioa:

Udal hau ahalik eta modurik zuzenean eta legeriarekin bat etorritik saiatzen da kontrataziorako administrazio-espeditente guztiak izapidetzen. Halaber, beti saiatzen da aintzat hartzen kontratazioetan eragina duten lan-baldintzak, eta aspalditik eskatzen zaio, zenbateko handiko kontratu gehienetan, adjudikaziodunari aurkez ditzala gizarte-segurantzako dokumentuak (langileak alta emanda dauden ala ez, kotizazio sozialak betetzen dituen ala ez, eta soldatak garaiz ordaintzen dituen ala ez). Hortaz, udal hau oso kontzientziazatuta dago kontratazioan klausula sozialak betetzearekin, eta, askotan, horietako batzuk kontratazio-agirietan sartzen ditu; beraz, adjudikazio-ebazpenetan hitzarmen



kolektiboei buruzko informaziorik ez aipatzea akordioak prestatzean izandako hutsegite bat baino ez da, baina horrek ez du esan nahi udal honek ez duela arretaz berrikusten administrazio-kontratazioaren xede diren zerbitzuak ematean edo obrak gauzatzean gizarte eta lan arloko legeria betetzen ote den.

Hala ere, hutsegitea ohartarazita, udal honek aplikatzekoa den hitzarmenari buruzko informazioa jaso du azken adjudikazio-ebazpenetan. Azken lizitazioen adjudikazio-ebazpenak erantsi dira; hala ere, Eusko Jaurlaritzaren kontratatzailearen profilean txertatutako dokumentuetan egiaztatu ahal izango da.

- Kontratu batean (4. espedientea) behin betiko bermeak gainditu egiten du legez eskatzen dena.

Alegazioa:

Udal honek behar den bezala eskatu ditu behin betiko bermeak adjudikatu dituen kontratu askotan (duela gutxi kontratu asko aztertu ondoren). Hori dela eta, hizpide dugun espedientearen kasua, hura izapidetu zuen pertsonaren akatsa edo hutsegitea izan da eta inoiz ez da izan kontratazioari buruzko legeria urratzeko asmorik.

- Bi obra egikaritzean (1. eta 2. espedienteak) atzerapenak izan dira, baina ez da luzapenik onetsi eta ez da zehapenik ezarri.

Alegazioa:

Arestian adierazi den bezala, Udalak oso langile gutxi ditu eta 2020an errealitate eta krisi sanitarioak erabat gainditu zuen ohiko lan-plangintza guztiak. Batzuetan langileek telelana egin behar izan zuten eta herritarrentzat lehentasunezkoak ziren beste premia batzuei erantzun behar izan zitzairen; hortaz, beste zeregin batzuk baztertu egin behar izan ziren, lehentasunezko zerbitzu publikoen garapenean efizientzia eta efikazia izateko, baina inola ere ez da izan legez ezarritako eskakizunak betetzeko utzikeriagatik edo borondate ezagatik.

2020 ekitaldian, udal honek, beste administrazio askok eta askok bezala, gainezka egin zuen eta langileek ezin izan zituzten nahi bezala egiaztatu eta kontrolatu administrazio-espediente guztiak. Baina jarduketa horrek ez die, inola ere, kalterik egin kontratuaren xedea zorrotz betetzen zela egiaztatzeko zereginei.

- Luzapen desegokiak kontratazio batzuetan.

Arestian adierazi den bezala, Udalak oso langile gutxi ditu eta 2020an errealitate eta krisi sanitarioak erabat gainditu zuen ohiko lan-plangintza guztiak. Batzuetan langileek telelana egin behar izan zuten eta herritarrentzat lehentasunezkoak ziren beste premia batzuei erantzun behar izan zitzairen; hortaz, beste zeregin batzuk baztertu egin behar izan ziren,



lehentasunezko zerbitzu publikoen garapenean efizientzia eta efikazia izateko, baina inola ere ez da izan legez ezarritako eskakizunak betetzeko utzikeriagatik edo borondate ezagatik.

2020 ekitaldian, udal honek, beste administrazio askok eta askok bezala, gainezka egin zuen eta langileek ezin izan zituzten nahi bezala egiaztatu eta kontrolatu administrazio-espeditente guztiak. Baina jarduketa horrek ez die, inola ere, kalterik egin kontratuaren xedea zorrotz betetzen zela egiaztatzen zereginei. Pilatzen ari zen administrazio-lanaren eta herritarrentzat garrantzitsuenak ziren gaiei eta zerbitzu publiko garrantzitsuenei lehentasunez erantzuteko asmoren isla baino ez da.

Administrazio-kontratazioaren espeditenterik gabeko gastuak

Alegazioak:

Udal honek ez ditu energia elektrikoaren horniduraren kontratazioa abiarazteko beharrezkoak diren teknikariak; izan ere, prestazioa oso espezifikoa da eta oso ziala da eskaintzak baloratzea. Hori dela eta, Udalak ez du hornidura horren lizitaziorik atera. Duela gutxi, Udalak Arabako Foru Aldundiari eskatu dio Foru Kontratazioen Zentralak izapidetzen dituen mota horretako horniduren esparru-kontratura atxikitze, baina oraindik ez dizkigute bidali atxikipen hori formalizatzeko akordioak.

III.4 BESTE BATZUK

Gardentasuna

Dokumentu honetan zehar alegatu den bezala, udal honek ez du langile askorik, eta are gutxiago teknikari profila dutenik. Gardentasunari buruzko legeriako betekizunak betetzeko, beste erakunde batzuen gardentasun-atariak egiten espezializatuta dagoen enpresa bat kontratatu behar izan dugu, Aiarako Udaleko gardentasun-ataria egiten laguntza tekniko emateko: hortaz, 2022. urtea amaitu baino lehen, gardentasun instituzionalaren eskakizun guztiak bete ahal izango ditugu Udalaren webgunearen bidez. Zerbitzua adjudikatzeko kontratu txikiaren aurrekontuaren onespina atxiki da.

Hornitzaileei ordaintzeko epeei buruzko informazioa

2020an errealitate eta krisi sanitarioak erabat gainditu zuen ohiko lan-plangintza guztiak. Batzuetan langileek telelana egin behar izan zuten eta herritarrentzat lehentasunezkoak ziren beste premia batzuei erantzun behar izan zitzaizkien; hortaz, beste zeregin batzuk baztertu egin behar izan ziren, lehentasunezko zerbitzu publikoen garapenean efizientzia eta efikazia izateko, baina inola ere ez da izan legez ezarritako eskakizunak betetzeko utzikeriagatik edo borondate ezagatik.





Herri - Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

ABREVIATURAS

AG	Administración General.
BOE	Boletín Oficial del Estado.
BOTHA	Boletín Oficial del Territorio Histórico de Álava.
CAPV	Comunidad Autónoma del País Vasco.
CEIP	Colegio de Educación Infantil y Primaria.
DFA	Diputación Foral de Álava.
EELL	Entidades Locales.
FOFEL	Fondo Foral de Financiación de Entidades Locales.
IBI	Impuesto sobre Bienes Inmuebles.
IAE	Impuesto sobre Actividades Económicas.
ICIO	Impuesto sobre Construcciones, Instalaciones y Obras.
IVTM	Impuesto sobre Vehículos de Tracción Mecánica.
IIVTNU	Impuesto sobre el Incremento del Valor de los Terrenos de Naturaleza Urbana.
IRPF	Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas.
LCSP	Ley 9/2017, de 8 de noviembre, de Contratos del Sector Público, por la que se transponen al ordenamiento jurídico español las Directivas del Parlamento Europeo y del Consejo 2014/23/UE y 2014/24/UE, de 26 de febrero de 2014.
LRBRL	Ley 7/1985, de 2 de abril, reguladora de las Bases del Régimen Local.
NF	Norma Foral.
PGOU	Plan General de Ordenación Urbana.
PPS	Patrimonio Público de Suelo.
RPT	Relación de Puestos de Trabajo.
RSU	Residuos Sólidos Urbanos.
RTGG	Remanente de Tesorería para Gastos Generales.
THA	Territorio Histórico de Álava.
TVCP	Tribunal Vasco de Cuentas Públicas.





I. INTRODUCCIÓN

